

[Eusk/Cast] Blackstone, el mayor fondo buitre inmobiliario a nivel mundial ha aterrizado en Bilbo

ALBA GARCÍA MARTÍN- MAIZTERRAK SINDICATO DE INQUILINAS DE BILBAO ::
11/12/2020

No hay derecho a que esta familia tenga que verse en la calle con tres niñas para que se active no sé qué “protocolo anti-desahucio”.

No hay derecho a que esta familia tenga que verse en la calle con tres niñas para que se active no sé qué “protocolo anti-desahucio”.

Artículo de opinión de Alba García Martín- Maizterrak Sindicato de inquilinas de Bilbao.

[Euskara]

EZ DU ITXURA ONIK

Blackstone, blackstone, blackstone. Gogoratu ondo izen hori, hemendik aurrera, nonahi entzungo duzuelako.

Blackstone, mundu mailako putre-funts handienak lur hartu du gure hirian. Bai, hemen Bilbon, gure agintari politikoek halako funtsekin negoziatu eta gure hiriko lurzorua saldu egiten dute obra publikoak egiteko dirua eskuratzeko.

Horrela ikusita, askok esango duzue, bueno, ez dago hain gaizki ez? Gure hiriarentzako onuragarriak diren obretan inbertitzeko era bat da, gure hirien «*hobekuntza*» eta «*garapenerako*» doan dirua da.

Ba inondik ere ez. Gure hiriak saltzen baditugu, ondorioak ordaindu beharko ditugu, eta argi izan, ondorio horiek larriak izango direla.

Gaur adibide bat emango dizuegu: Bilboko San Frantsizko auzoko Mena kalea.

Mena kalea oso baliotsua da; ezagutzen ez duenarentzako, trenbidearen gainean dago, *Bilbao-Abando, Hurrengo Geltokia* proiektuaren baitan lurperatuko diren trenbideen gainean. Hain web orrian dioten bezala: «*Ez da soilik geltoki bat, hiri eredu bat da*». Eta noski dela hiri eredu bat, jada izan dugu horren berri.

Badakigu auzokideak haien auzoetatik kanporatzen dituen hiri eredu bat dela; hiriarenean erdigunean errenta baxuko pertsonak nahi ez dituen hiri eredu bat, hain zuzen ere. Hiri eredu horretan saldu egiten gaituzte, guri, auzokideoi, «*hobekuntzak*» egiteko. Berriz ere joko dut haien web orrira: «*Zauriak ixteko garaia da, Bilbo Zaharra, Abando eta Zabala banatzen dituen ehun urteko lubakia estali, eta hiritarrentzako espazio berriak altxatzekoa. Etorkizuna hiri ireki batetik igarotzen da, adeitsua, hemen bizi garenontzat eta baita bisitatzen gaituzten guztiontzat*».

Baina zein hiritarrentzat dira espazio berri horiek, bertan bizi diren auzokideak kaleratzen ari bazarete? Alami eta Bahiari galdetuko bagenie Mena kaleko auzokideak, non haien hiru alaba adingabeekin bizi diren; haiei galdetuko bagenie zein irekia eta adeitsua iruditzen zaien hiri hau, zein uste duzue izango dela erantzuna?

Lerro hauetan agertuko nahiko nuke familia horrek sufritzen ari duen utzikeria, enpatia falta, mina, umiliazioa eta mespretxua, eta hori dena, udalaren konplizitatearekin.

Ez dago eskubiderik inork haien alde ezer ez egiteko, ez dago eskubiderik oinarritzko zerbitzu sozialetara joan, eta errekurtsioetarako sarbidea, maiz, atetik sartu bezain pronto epaitzen zaituen norbaiten eskuetan egoteko.

Ez dago eskubiderik familia hau kale gorrian ikusi behar izateko bere burua, hiru alabekin, «*kaleratzeen-aurkako*» ez dakit zer protokolo jarri dezaten martxan.

Ez dago eskubiderik epaitegietan prozesu hau eramaten duenak, onaren eta gaizkiaren gainetik balego bezala hitz egin dezan; inolako zalantzarik egin gabe, familia bati zuzendu eta bai ala bai kaleratua izango dela esateko.

Ez dago eskubiderik inork zera ez pentsatzeko: «*Bilboko auzokideak dira! Etorkizuna ez zen hiri ireki eta adeitsu batetik igarotzen hemen bizi garen pertsonentzat?*»

Ez dago eskubiderik oinarritzko zerbitzu sozialen konponbidea fidantza eta alokairu hilabete bat ordaintzea izatea; errepikakorra eta nahiko krudela den konponbidea, ondo baino hobeto dakitenean higiezin-agentziek ez dizkietela pertsona emigranteei, soldatarik ez dutenei edota DSE-a jasotzen dutenei etxerik alokatzen.

Ez dago eskubiderik instituzioen partetik utzikeria bihozgabe hori jasotzeko, ezta putrefuntsen praktika mafiosoak pairatzeko, Blackston-en praktika mafiosoak; familia hau bota nahi dute, Mena kaleko bloke horrekin egin zuten bezala.

Ez dago eskubiderik, eta horregatik, Maizterrak Bilbo geratzeko etorri da. Momentuz kaleratzea geldiaraztea lortu dugu, baina familia hau etxebizitza alternatibo bat izan gabe jarraitzen du.

«*Ez du itxura onik*», esaten zion enpatia handiarekin Alamiri bere langile sozialak bere egoeraren inguruari buruz hizketan.

Arrazoia duzu andrea, ez du itxura onik, eta horregatik ez gara joango inora.

Alba García Martín- Maizterrak Bilbao sindikatuko kidea

[Castellano]

NO PINTA BIEN

Blackstone, blackstone, blackstone. Quedaos con ese nombre porque a partir de ahora lo vamos a tener hasta en la sopa.

Blackstone, el mayor fondo buitre a nivel mundial ha aterrizado en nuestra ciudad. Sí, aquí en Bilbao, nuestros dirigentes políticos negocian con este tipo de fondos y venden el suelo de nuestra ciudad para poder tener pasta con la que pagar las obras públicas.

Visto así muchos diréis, bueno pues ni tan mal ¿no? Es una manera de tener dinero con el que invertir en obras para la ciudad, proyectos... dinero para la “*mejora*” y el “*desarrollo*” de nuestras ciudades.

Sentimos deciros que...tururú. Que ojalá vender las ciudades no acarreará consecuencias, pero las acarrea, y son graves.

Hoy vamos a poneros un ejemplo, la calle Mena del barrio de San Francisco de Bilbao.

La calle Mena es una calle muy jugosa; para quien no la conozca, está prácticamente encima de lo que será el soterramiento del TAV, en la primera línea del proyecto denominado *Bilbao-Abando, Hurrengo Geltokia*, cito literalmente de su propia web: “no es solo una estación es un modelo de ciudad”. Y tanto que es un modelo de ciudad, nos consta.

Nos consta que es un modelo de ciudad en el que se expulsa a las vecinas de sus barrios, uno que no quiere gente con rentas bajas viviendo en el centro. Es un modelo de ciudad que nos vende, a las vecinas, para hacer lo que llaman “*mejoras*”. Vuelvo a citar su web: “*Ha llegado el momento de cerrar heridas, cubrir la trinchera centenaria que divide a Bilbao La Vieja, Abando y Zabala y levantar nuevos espacios para la ciudadanía. El futuro pasa por una ciudad abierta, amable con las personas que aquí vivimos y las que nos visitan.*”

¿Para qué ciudadanía son estos nuevos espacios si estáis echando a las vecinas que residen en ellos? Si les preguntáramos a Bahía y Alami, vecinas de la calle Mena donde residen con sus tres hijas menores, cuánto de amable y abierta les parece esta ciudad, ¿cuál creéis que será su respuesta?

Me gustaría plasmar en estas líneas el profundo sentimiento de abandono, falta de empatía, dolor, humillación y desprecio por el que está pasando esta familia, con la complicidad de nuestro ayuntamiento.

No hay derecho a que nadie haga nada por ellas, no hay derecho a que acudan a los servicios sociales de base y el acceso a los recursos venga dado por alguien que, en ocasiones, te juzga según entras por la puerta.

No hay derecho a que esta familia tenga que verse en la calle con tres niñas para que se active no sé qué “*protocolo anti-desahucio*”.

No hay derecho a que la señora que lleva este procedimiento en los juzgados nos hable como si por encima del bien y del mal estuviera, y sin titubear diga que serán desahuciadas sí o sí.

No hay derecho a que nadie se plantee que ellas son vecinas de Bilbao! ¿no pasaba el futuro por una ciudad abierta y amable con las personas que aquí vivimos?

No hay derecho a que una propuesta de solución de los servicios sociales de base, recurrente y un tanto cruel, sea pagar un mes de fianza y alquiler, cuando saben perfectamente que las inmobiliarias se niegan a alquilar viviendas a personas migrantes, personas sin nómina o a perceptoras de RGI.

No hay derecho a ese abandono atroz por parte de las instituciones y tampoco a las prácticas mafiosas de los buitres, de Blackstone, que quieren echar a esta familia como ya lo hicieron antes con todo ese bloque de la calle Mena.

No hay derecho y por eso Maizterrak Bilbo venimos para quedarnos. De momento hemos conseguido paralizar el desahucio, pero esta familia sigue sin una alternativa habitacional.

“No pinta bien”, le decía con mucha empatía hace unos días a Alami su trabajadora social, hablando sobre su situación.

Tiene razón señora, no pinta bien, por eso no nos vamos a ninguna parte.

Alba García Martín- Maizterrak Sindicato de inquilinas de Bilbao

<https://www.ecuadoretxea.org/blackstone-el-mayor-fondo-buitre-inmobiliario-a-nivel-mundial-ha-aterrizado-en-bilbao/>

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-blackstone-el-mayor>